


Euskal AEko industria-prezioak % 1,1 igo dira 2021eko urrian aurreko hilaren aldean

2020ko urriaren aldean, industria-prezioek % 11,5 egin dute gora

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 1,1 igo dira 2021eko urrian aurreko hilaren aldean. Urriko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 11,5ekoa izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen 2021eko urrian prezioetan hazkunderik handienak izan dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Kokeriak eta petrolioaren finntzea* (% 9,7), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 2,0) eta *Industria kimikoa* (% 1,9). Aitzitik, prezioetan hila arteko jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak izan dira *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 2,0ko jaitsiera), *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria* (% 0,8koa) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 0,5ekoa).

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, prezioen aldaketak askotarikoak izan dira aurreko hilaren aldean. *Energiaren* prezioak % 6,3 igo dira. Aitzitik, *Ekipo-ondasunak* % 0,8 jaitsi dira, eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 1,0. Azken horien barruan, *Kontsumo-ondasun ez iraunkorren* jaitsiera % 1,1ekoa izan da, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrena* % 0,2koa. *Bitarteko ondasunen* prezioak, berriz, egonkor mantendu dira (% 0,0).

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2021eko urria

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2021urr / 2021ira	2021urr / 2020urr
INDIZE OROKORRA	111,8	1,1	11,5
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	107,9	0,9	2,6
Manufaktura-industria	112,1	0,9	10,3
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	108,9	-0,8	2,7
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	104,6	0,6	-2,9
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	111,3	0,6	7,5
Kokeak eta petrolioaren fintzen	127,6	9,7	51,4
Industria kimikoa	121,6	1,9	13,2
Botiken fabrikazioa	111,5	0,9	2,1
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	101,1	0,7	2,3
Metalurgia eta produktu metalikoak	116,2	-0,5	13,9
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	114,6	0,8	9,9
Material eta ekipoen fabrikazioa	107,5	0,0	2,7
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	105,6	0,2	2,3
Garraiorako materialen fabrikazioa	103,8	-2,0	-4,6
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	108,8	-0,1	2,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	110,2	2,0	20,2
Ura	112,5	1,0	2,9
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	109,7	-1,0	3,0
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	106,6	-0,2	2,4
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	110,2	-1,1	3,1
Ekipo-ondasunak	108,1	-0,8	0,2
Bitarteko ondasunak	111,4	0,0	9,4
Energia	120,9	6,3	38,1

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urte arteko terminoetan, 2021eko urrian, 2020ko urriaren aldean, prezio-hazkunderik handienak adar hauetan gertatu dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 51,4ko igoera), *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 20,2koa) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 13,9koa). Kontrako noranzkoan, jaitsi egin dira *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 4,6) eta *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 2,9) sektoreetako prezioak.

Helburu ekonomikoaren arabera ondaskuntza handien prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da guztientzat: *Energiarenak* % 38,1 igo dira, *Bitarteko ondasunenak* % 9,4 eta *Ekipo-ondasunenak* % 0,2. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 3,0 igo dira, zeren *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 3,1 igo diren, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak* % 2,4.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62